

**BILBON ZUZENeko KONTSUMOA SUSTATZEKO BILBOKO BONUAK IZENeko
PROGRAMAREKIN BAT EGITEKO DOKUMENTAZIOA**

Establezimenduek Bilbon zuzeneko kontsumoa sustatzeko BILBOKO BONUAK programarekin bat egin ahal izango dute, eta horretarako inprimaki elektroniko bat (www.bonobilbao.eus) bete beharko dute, datu guztiekin, eta honako hau erantsita.

- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda daudela egiaztatzen duen dokumentua, deialdi honetarako beharrezkoa den jarduerarekin zerikusia duen epigrafean, hain zuzen ere.
- Kontu korrante bat bere izenean duela egiaztatzen duen agiria.
- Establezimenduaren irudia.

Atxikitze eskaera egin duen establezimendu edo entitateak **honako konpromiso hauek hartu ditu bere gain:**

- Bilbon zuzeneko kontsumoa sustatzeko BILBOKO BONUAK programa kudeatzeko ezarritako baldintzen berri du, eta onartu egiten ditu.
- Egunean dituela Zerga Ogasunarekiko, Bilboko Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- Programarekin bat egiten du, eta bertan ezarritako konpromisoak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du.
- Programan atxikitzeak berekin dakar programan parte hartzea ere, salbu eta idatziz eta programa amaitu baino lehen programatik baja eman nahi dela adierazten badu.
- Kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartzen du.
- Establezimenduan programa identifikatzeko kartela ondo ikusteko moduko leku batean jartzeko konpromisoa hartzen du.
- Erosketaren eta Bilboko Bonuaren balioaren arteko aldeari dagokionez, kontsumitzaileei ez die dirua eskudirutan itzuliko, ez erosketa egiteko unean, ez horrekin eskuratutakoa itzultzen denean.